

## **BALIO PROPOSAMENA**

Klimarekiko jarrera aldatzen ez badugu, baso-suteak %30 handituko dira 2050erako, eta %50 mende amaierarako, krisi klimatikoaren ondorioz. Biztanleriaren %55ek estres hidrikoa jasango du, hau da, ur-eskaria denboraldi jakin batean dagoen kantitatea baino handiagoa izango da. Horregaitik, Ekintzaileak enpresa sortu dugu ikusi dugulako ingurumena egunetik egunera okerrago dagoela.

Hondakinen ekoizpen altuak berotze globala errazten du. Zenbat eta hondakin gehiago sortu egunero, orduan eta metano gas-maila handiagoa izango da ingurunean, zabortegetan materialak deskonposatzean. Gainera, modu masiboan kontsumitzeak eskaera handiagoa dakar, eta, beraz, industrien produkzio-mailak gora egingo du, eta, ondorioz, atmosferara askatzen diren berotegi-efektuko gasen mailak handiagoak izango dira.

### **Helburu nagusia:**

Gure idea edozein objekturi bigarren bizi ematea da, horrela ingurumenaren ongizateari, lan esplotazioari lagundu eta ur-kontsumoa gutxitzen laguntzeko

### **Hau lortzeko bi eratarata lan egingo dugu:**

-Pertsonak produktuak guri entregatu ahal digute eta gure konpondu edo berriztatu egiten dizkiegu. Horrekin, beste produktu berri bat ez erostea laguntzen dugu eta beste produktu berri bat ez erostean, produktu berriak egitea saihesten dugu, lan esplotazioa murrizten dugu eta baita ur-kontsumoa ere.

-Gure bezeroek ematen dizkiguten produktuak gure denda fisikoetan eta gure web orrian jarriko ditugu salgai.

Gure lana haiek aztertzea izango da, eta, hondatuta badaude, konpondu egingo ditugu, saltzeko.



# ADI!

## EHUNGINTZAREN INGURUMEN INPAKTUA

**100.000**  
milioi jantzi ekoizten dira urtean. % 75 zaborregian amaitzen da eta % 25 berrerabiltzen dira

---

### MUNDUKO BIGARREN

industria kutsatzaileena, petrolio-industriaren atzetik

---

**8%**  
CO2 isuriena. 850 milioi tona.

---

**%20**  
hondakin urena, ekoizpenean erabilitako substantzia kimikoengatik

---

**387.000**  
milioi litro. Urteko ur-kontsumoa ehungintzan

---

**10.000**  
litro ur behar dira kilo bat kotoi ekoizteko

## Ur-kontsumoa jantzi bakoitzeko

LITRO UR JANTZI BAKOITZEKO

<p><b>10800</b></p> <p>Bakeroa <b>2700</b></p> <p>Kotoizko kamiseta</p>	<p><b>4400</b></p> <p>Zapatak <b>2200</b></p> <p>Jertsea</p>	<p><b>4400</b></p> <p>Kirol zapatillak <b>1500</b></p> <p>Alkandora</p>
---	--	---